

Maite Alonso, presidentea
Begoña Cabria
Ainara Ibañez
Aitor Idigoras
Ana Marta Iriarte
Mari Tere Ojanguren
Idoia Pujana
Jone Unzueta
Eduardo Ubieta
Lourdes Villardón
Eva Blanco, idazkari teknikoa

IRIZPENA 21/09

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2021eko ekainaren 10n bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Hezkuntza Sailaren titularitatekoa den Lanbide Heziketako ikastetxe publiko integratua sortzen duen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren eskumenak ematen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoari unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak sortu, eraldatu, handitu, batu, sailkatu eta kentzeko.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 5. artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoei dagokie irakaskuntzaren programazio orokorra egitea, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeak sortzea, aldatzea edo ezabatzea, kalitatezko irakaskuntza bermatuko duen plangintza demokratiko eta parte-hartzailearen esparruan.

II. EDUKIA

Dekretuak bi artikulua eta azken xedapen bat ditu.

Lehenengo artikulua Murgia BHiko irakaskuntzak bitan banatzen ditu, eta bertatik lanbide-heziketako irakaskuntzak bereizten ditu. Irakaskuntza horiek Lanbide Heziketako ikastetxe integratu berri batean integratzen dira.

Bigarren artikulua, ikastetxe baten banaketaren ondorioz, lanbide-heziketako ikastetxe integratu bat sortzen du. Ikastetxe horrek honako heziketa-ziklo hauek eskainiko ditu: baso-aprobetxamenduetako oinarritzko lanbide-heziketa, natura-ingurunea ustiatzeko eta kontserbatzeko teknikaria eta Baso-kudeaketako eta natura-inguruneke goi-mailako teknikaria.

Azken Xedapenak dio noiz sartuko den indarrean dekretua.

III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Hezkuntza Sailaren mendeko beste ikastetxe batzuen eraldatzen baten ondorioz integratutako ikastetxeak sortzeko zenbait dekretu-proiekturi buruzko irizpena eman du Kontseiluak.

Kasu honetan, ikastetxe integratua sortzeko, Murgia BHIko irakaskuntzak bikoizten dira. BHIk DBHko irakaskuntzak ematen jarraituko du, eta ikastetxe berriak, berriz, lanbide-heziketako irakaskuntzak.

Dekretu-proiektu honek irakaskuntzen banaketa eta ikastetxe berriaren sorrera ezartzen ditu, baina ikastetxe bateratuak sortzeko aurreko Dekretuetan jasotzen diren oinarrizko alderdi batzuk ez dira jaso, eta, gure ustez, artikuluetan jaso beharko lirateke:

- Zioen azalpena: ez da jaso lanbide-heziketako ikastetxe integratuen araudia:
 - Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak.
 - Abenduaren 23ko 1558/2005 Errege Dekretuak lanbide-heziketako ikastetxe integratuentzako oinarrizko baldintzak arautzen ditu.
 - Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeak II. Kapitulan jasotzen du lanbide-heziketako euskal sistema integratua.
 - 46/2014 Dekretuak arautzen ditu Euskadiko lanbide heziketako ikastetxe bateratuak bere 8.1 artikuluan, non zehazten baitu ikastetxe horiek berriak izan daitezkeela eta baita ere lehendik daudenak eraldatuz, batuz edo banatuz sortu direnak.
- **2. artikulua:** ez artikulua honetan, ez arauaren tituluan, ez da zehazten sortzen den ikastetxearen izen espezifikoa.
- Artikulu honetan lanbide-heziketako irakaskuntzen eskaintza zehazten da; LOEren berriki egindako aldaketan ezartzen den izenera egokitzea proposatzen dugu: **oinarrizko, erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketako-zikloak.**

Gainera, honako alderdi hauek ezarri beharko liratekeela uste dugu:

- Ikastetxe berria titulartasun publikoko lanbide-heziketako ikastetxe integratuen sarearen barnean sartzea.
- Prestakuntza-eskaintza, ez bakarrik LHko irakaskuntza arautuak, baita langileak laneratzeko eta birlaneratzeko ekintzak eta lanean ari diren langileei zuzendutako bizialdi osoko ikaskuntzarako ekintzak ere.

- Lanbide-informazio eta orientazioko zerbitzuak sartzea, eta, hala badagokio, berariazko araudian zehazten denaren arabera, baita beste ikaskuntza ez formal batzuen bidez edo lan-eskarmentuaren bidez –kualifikazioen eta lanbide-heziketaren sistema nazionalaren esparruan– lortutako gaitasuna ebaluatzeko zerbitzuak eta kalitatezko prestakuntza, enplegarritasuna, berrikuntza eta ekintzailtza sustatzen duten beste zerbitzu batzuk ere.
- Zentroko langileei eta langileak zentro berrira atxikitzeari buruzko aipamena.
- Azkenik, zuzendariaren izendapena eta kontseilu sozialaren eraketa aipatu beharko lirateke.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren ustez, zentro horrek 46/2014 Dekretuan ikastetxe integratutzat jotzeko jasotako eskakizunak betetzen ditu, eta, horregatik, aurrekoetan adierazi duen bezala, ez du eragozpenik baso eta baliabide naturalak kudeatzeko eremuan integratutako zentro bat sortzeko eskualdeari bultzada eman diezaioketen.

Euskadiko Eskola Kontseiluak ez dauka oztoporik dekretu proiektuak planteatzen duen bezala ikastetxe bat eraldatzeko, betiere 46/2014 dekretuko eskakizunak betetzen badituzte ikastetxe integratu izateko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2021eko ekainaren 10ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA